



Hiztegia

A _ _ _ _ _

Asertibotasuna

Besteari entzuteko eta haren tokian jartzeko gaitasunari esaten zaio. Komunikazio eraginkorragoa lortzea da helburua. Denak berdinak garela dioen printzipioan oinarritzen da. Horren arabera, guztiok eskubide berdinak ditugu eta errespetu bera merezi dugu.

B _ _ _ _ _

D _ _ _ _ _

E _ _ _ _ _

Ekintzailletza

Proiektu edo ideia bat martxan jartzeko ekintzari esaten zaio.

Etorkizun-sena

Aldaketak aurreikusteko gaitasuna.

Ez-hitzezko komunikazioa

Hitzik gabeko mezuak bidaltzean eta hartzean oinarritzen den komunikazioa, hau da, hitzak ez diren

bestelako bitartekoen bidez transmititzen den informazioa: ahotsaren tonua, bolumena, aurpegiaren espresioa, gorputzaren espresioa, edota arropa, besteak beste.

F _ _ _ _ _

G _ _ _ _ _

H _ _ _ _ _

Helburua

Lortu nahi den jomuga zehatza.

Hitzezko komunikazioa

Hitzetan oinarritzen den komunikazioa.

I _ _ _ _ _

Ikuspena

Idea bat gauzatu aurretik, ideia hori buruan irudikatzeko gaitasuna.

Indibidualismoa

Gainerako taldekideen iritzia kontuan hartu gabe erabakiak hartzearen aldeko jarrera.

Inprobisazioa

Gidoirik gabe lan egitea eta aldaketak sortzen diren heinean horiei moldatzea suposatzen duen prozesua.

Irabazi-irabazi

Negoiazio eredu ideala da, non denek irabazten duten.

J _ _ _ _ _

K _ _ _ _ _

Kolektibismoa

Erabakiak taldekide guztien artean hartzearen aldeko jarrera.

Komunikazio eraginkorra

Elkarri ulertzearren, elkarri entzutean datzan prozesua.

L _ _ _ _ _

Lidergoa

Lidergoa da pertsonengan eragiteko eta haiek motibatzeke gaitasuna, konpromisoa lan egin dezaten helburu komun baterantz.

M _ _ _ _ _

Motibazioa

Gure jokabidea aktibatu, gidatu eta mantentzen duen barnealdeko egoerari esaten zaio.

N _ _ _ _ _

Negoiazioa

Gai beraren aurrean jarrera ezberdinak dituzten aldean arteko gatazkak konpontzeko prozesua. Helburua da adostasuna lortzea; horretarako, proposamenak komunikatzen eta elkartrukatzeko dira, alde guztiek lor ditzaten beren interesetarako emaitza baliagarriak.

O _ _ _ _ _

P _ _ _ _ _

Pentsamolde irekia

Idea eta egoera berrien aurrean, jarrera ona izateko gaitasuna.

Planifikazioa

Emaitza jakin bat lortzeko, aldez aurretik aztertutako pausu jakin batzuk jarraitzean datzan prozesua.

Proaktibitatea

Ezarritako helburu bat lortzeko gauzatu beharreko ekintzak erabakitzeko gaitasuna, norbere gain hartuz ondo egindakoaren zein egindako akatsen erantzukizuna.

Publiko objektiboa

Produktu edo zerbitzu jakin baten hartzaile den norbanakoen taldea.

R _ _ _ _ _

S _ _ _ _ _

Sinergia

Taldeko lanaren emaitza. Lortzen den emaitza, emaitza indibidualen batura baino handiagoa da. Sinergia modu honetan adierazten da: $2+2=5$.

T _ _ _ _ _

U _ _ _ _ _

X _ _ _ _ _

Y _ _ _ _ _

Z _ _ _ _ _

Zeregin-aniztasuna

Zenbait lan aldi berean egitea.